

DANI BLANCO



## Estitxu Eizagirre

◆ ARGIAKO ZUZENDARIA

# Erakunde publikoek %0,47 euro inbertitzen dute euskarazko prentsan, herritar askok %4

EUSKO JAURLARITZAK eta Gipuzkoako Foru Aldundiak 2014rako aurrekontuak aurkeztu dituzte. Euskarazko hedabideentzat diru poltsa bera mantenduko duten berria zabaldu da. Xanpaina atera behar ote dugun... aparraren azpiko likidoa neurtzera jo dugu:

Eusko Jaurlaritzak aurrekontu osoaren (10.215 milioi euro) %0,047 (4,87 milioi euro) inbertituko du euskarazko hedabideetan. EITBren 121,8 milioiak bereizita.

Gipuzkoako Foru Aldundiak aurrekontu osoaren (758.641.970 euro) %0,47 (3.579.465 euro) inbertituko du euskarazko hedabideen diru-laguntzetan.

Herritar askok hileko soldataren (1.200 euro) %4 (48,1 euro) ordaintzen du (*Berria*, ARGIA eta herri prentsa erosten duenak). Erakunde publikoek eredu behar dituzte euskara biziberritzeko nukleo diren herritar horien aurrekontuak.

Hedabideena da Euskara sailen barruan diru poltsa nagusia. Gipuzkoako Foru Aldundiak %0,7 inbertitzen du euskarari. Eusko Jaurlaritzak euskarari osotasunean aurrekontuetan zenbat eskaintzen dion jakiterik ez dut lortu. Ordezkarik politikoen azaldu dezakete euskara zer epetan eta noraino biziberritu daitekeen %0,7 inbertituta. Euskarak zer pisu duen lantzen ari diren herri eremuan. Umorez ikusita, euskararen kinka berez ez dela arazo handia pentsatuta hobe bizi gaitezke. Aurrekontuaren %07 eskatzen

duen aferari benetan arazoa deitu ote dakiok? Zer-gak ordaintzen eta bozka ematen duten herritar askok euskarari dezente gehiago inbertitzen dute (aski luke 1.200 euroko soldata duen herritar horrek hilean 8,4 euro jartzea euskarazko hedabideetan, euskaltegian, euskara elkartean... erakunde publikoek euskarari eskaintzen dioten kuota berdintzeko).

Herritar euskaltzale moduan, estimatuko genuke ikerketak egitea euskararen berreskurapenean eta garapenean proiektu bakoitzak duen pisua ezagutzeko, bai kuantitatiboki bai kualitatiboki. Diru publikoa banatzerakoan irizpide sendoa litzateke, diru hori medio batean edo bestean inbertitu, zer emaitza lortzen ditugun aintzat hartzea. Eta hor zaku berekoak

gara EITB eta herri ekimeneko hedabideak. Euskarazko hedabideon biziraupenerako baldintza edo helburu nagusia horixe baita, euskararen ibaia itsaso bihurtzea, ogi apurren menpe egon beharrik ez izateko.

2014ko aurrekontuak badoaz, baina 2015ekoak hobetu eta 2020rakoak benetan eraginkorrak izango badira, bil gaitzen Euskara saileko arduradun politikoenak, euskarazko hedabide eta elkartetako ordezkariak, eta bil dezagun baita ere herritarren ahotsa, euskarak, biziko bada, dagokion aurrekontua izan dezan. Eta euskarazko hedabideak, hizkuntzaren garapenerako funtsezko izanik, ahalik sendoenak izan daitezken. ■

*Herritar euskaltzale moduan, estimatuko genuke ikerketak egitea euskararen berreskurapenean eta garapenean proiektu bakoitzak duen pisua ezagutzeko*



elkar [www.elkarargitaletxea.com](http://www.elkarargitaletxea.com)

bizi literatura